



3 UDALBATZARRA  
Abortuaren legea izan zuten hizpide alderdiek

Iraileko ohiko udal batzarrean erabaki garrantzitsu bakarra hartu zen, abortuari buruzko legea ez aldatzeko eskatuz PSE-EEK egindako proposamena. Ondoren galderak luzatu zizkien PSE-EEK Jesus Zaballorosek Udal Gobernuko ordezkariei, udal langileen Gabonetako aparteko soldata, Okendoko apartakalekuak, Michelingo zelaia, Somoto laguntzei buruzko ikerketa eta bere aurkako pintadei buruz.

4 MARATOIA  
Parte hartzeko izen ematea sarean egiteko aukera

Euskararen Maratoia urriaren 20 eta 21ean ospatuko da. 40 orduko jaialdi handi honetan asko dira egin beharreko lanak. Horretarako eta antolatu diren bi ekintza berezietan parte hartzeko astelehenetik aurrera izena eman ahal izango da. Lehen urtez [www.euskararenmaratoia.com](http://www.euskararenmaratoia.com) webgunean etxetik mugitu gabe egin ahal izango da izena ematea.



Buruntzaldeako udaletako Euskara arduradunek eta euskaltegieta arduradunek egindako agerraldian euskara ikastearen garrantzia azpimarratu dute. Udalek euskaltegieta matrikulak ordaintzeko diru laguntzak bideratu dituzte aurten ere euskararen ikastea indartzeko asmoarekin. Laguntzak matrikularen %40 eta %75 artekoak izan daitezke. Iaz 500 ikasle aritu ziren eskualdeko euskaltegieta euskara ikasten.

U surbilen elkartu ziren Buruntzaldeako udaletako ordezkariek, euskara teknikariak eta euskaltegieta arduradunak. Bertan egindako agerraldian euskara ikasteko matrikulazioa zabalik dagoela gogoratu eta udalek hauek burutzeko diru laguntzak bideratzen dituztela azaldu zuten. Lasarte-Oriaren kasuan, udal euskaltegia eta Muntteri AEK-n egin daiteke matrikulazioa. Udalek ikasketa hauek sustatzeko asmoz, ikasleentzako diru laguntzak martxan dituzte eta dagoeneko eskarriak egin daitezkeela azpimarratu zuten. Kasuaren arabera, matrikularen %40tik %75 artekoa da Lasarte-Oriako udalak ematen duen laguntza.

David Rosco Urnietako Euskara zinegotzia izan zen hitza hartzen lehena. Honek euskara ikasteko dauden



Uurbilen eskualdeko udaletako eta euskaltegieta arduradunek egindako agerraldian.

erraztasunak azpimarratu nahi izan zituen "lehenik gertutasuna aipatuko nuke, herritar gehienek pauso batean baitute euskaltegia gure herrietan. Bigarrena, euskara ikasteko eskaintza zabalik dela, maila asko eskaintzen baitira, eta hirugarrena, euskara ikasleek udaletatik eskura ditzaketen diru-laguntzak". Hiru arrazoi hauek tarteko herritarrak animatu nahi izan zituen euskara ikasten hasteko edota prozesuan aurrera egiten jarrai dezaten.

Sarean

Gurutze Salaberria Hernaniko udal euskaltegiko zuzendaria berriz, on-line dauden aukerei buruz mintzatu zen. [www.buruntzaldea.org](http://www.buruntzaldea.org)

gunean euskara atalean, ikasleek euskaltegien informazioa aurkitzeaz gain, mailakatzeko frogak egiteko aukera dagoela frogak egiteko aukera dagoela azpimarratu zuen "beti ere frogak hauek orientagarriak dira ikasleak bere euskara maila zein den ezagut dezaten matrikula egitera jo aurretik".


Horretaz gain, sarean ere aurki daitezke udal bakoitzean ikasleentzat dauden diru laguntzen informazio osoa eta Mintzalaguna edo Solaskide ekimen osagarrien berri ematen da.

Lehen pertsonan

Bukatzeko Karmen Lloretetik hartu zuen hitza. Alacanten jaioa, Usurbilera bizitzera joan zen duela 10 urte. "Herrira iritsi bezain pronto

konturatu nintzen euskara ikastea beharrezkoa nuela nire eguneroko bizitzan, herrian integratu ahal izateko".

Euskaltegian izena eman eta lehen mailatik hasi zuen ikasketa prozesua Usurbilen bertan. Oraindik ikasten jarraitzen du baina irakaslea da eta bere egunerokoan euskara da bere hizkuntza. "Nahi dut azpimarratu nire esperientzia oso polita izan dela eta animatuko nuke jendea euskara ikastera, merezi duela". Euskaltegian urte asko egiteko beldurra dauka jendeak Karmenen ustez, "zaila delaren aitzakiarekin ez dute pausua ematen eta pena da, nik ez dut orain nire bizitza ulertzen euskara gabe".



ikasi eta landu

**euskara bizia**

hitza ematen dizu  
euskara ikasi eta euskaraz jakingo duzu

**muntteri** euskaltegia 

- AUTOIKASKUNTZA (Tutore baten laguntzaz eta mintza saioarekin)
- Hizkuntza perfilak (1-2-3)
- Euskara agiriak
- Euskalduntzeko maila guztiak
- EGA

**Geltoki kalea 17, behea • 20160 Lasarte-Oria**  
Tel.: 943 372863 [lasarte@ae.org](mailto:lasarte@ae.org)

Neure kabuz



**Jone M. Hernandez**

**Erritmoa hartu nahian**

Gogoan dut txikitan, herriko denbora eta erritmoa guztiz baldintzatu zegoela garaiko lantegiek inposatzen zuten ordutegi, zein egutegiengatik. Michelingo sirenarekin batera langileek kaleak betetzen zituzten lanerako bidean ilara amaiezina sortuz. Orain tupperrak, baina garai hartan fianbrek ziren protagonistak, langileek bularra aldean gurutzatuta zematzen poltsetan gordeta. Batzuetan ilara luze horrek harripatzen gintuen Okendo zaharreko petrilean eserita. Ikusgarria zen. Herria hustu eta bete, mantsotu eta azkartu egiten zen joan etorri horien eraginez. Olatuen antzera sentitzen nituen. Oporraldiek ere guztiz baldintzatzen zuten herriko martxa. Abuztukoak hasterakoan dena hutsik, isilik, geldituta. Amaitzerakoan kaleak berriz bete, zaratsatu, mugimenduan.

Urte batzuk joanda egoera bestelakoa da. Nabarmenak dira ekonomian edota lan munduan suertatutako aldaketak, Lasarte-Orian, zein mundu osoan. Garai hartako langile gehienak jubilatuta daude. Enpresen tamaina erruz txikitu da. Batzuk desagertu dira. Merkataritzan eta zerbitzuetan gora-behera handiak izan dira... Egun, beraz, zerk baldintzatzen ditu herriaren denbora eta erritmoak? Neurri handi batean umeen mantalak direla esango nuke. Euren ordutegia eta egutegiak, eskolakoak. Txirrinak sirena ordezkatu du, motxilak langileen poltsak, umeen lasterketak euren pausu arinak. Beraiek betetzen dute kalea. Euren joan-etorriak mantsotzen edo azkartzen dute herriko bizitza. Eta hor gabiltza, gutako asko, iraila berotsu hone-tan, euren atzetik erritmoa hartu nahian...

Zorion agurrak



**Unai**

Gero eta zaharrago bihurtuko zara, beste edonor bezala. Ja, ja, ja...



**Naiara**

Zorionak polita! Ospakizunetarako leku bikaina aukeratutakoa. Ondo pasa eta muxu pila!



**Imanol**

Zorionak guraso, lehengusu Richar, Pablo eta Maiteren partetik.



**Joana**

Zorionak Joana! Zure aita, ama, Enara, aitona eta Maiteren partetik.



**Eneritz, Aizpea eta Malen**

Zorionak 3 sorginei zuen urtebetzetan eta zure jaiotzan. Muxu erraldoiak familiaren partetik.



**Itziar**

Zorionak familiko guztien partetik! Txokomarrubizko zazpi muxu.



**Sara**

Zorionak politta! Hamarna muxu Intza, aita eta amaren partetik!

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo www.txintxarri.info web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

**Azoka txikia**

**Eskaintza inmobiliarioak**

- Bi garaje alokatzen dira Urbarten. Oso ekonomikoak. Marisol 697 905 233.
- Etxea alokatzen da Usurbilen. Lau logela, bi komun, sukaldia eta egongela. Garajea aukeran ere bai. 649 26 17 04 Marijo.
- Etxebizitza alokatzen da Sasoea auzoan. 2 logela ditu eta berogailu zentrala. Abala eskatzen da. Telefonoa: 649526766
- 116m2-ko aparteko pisua salgai, kultur etxearen parean. Guztiz berrituta dago. 3 gela, 2 komun, jantzigela, egongela eta sukalde ederra. Gela guztiak kalera ematen dute, lügo de Loyola kalera eta Geltoki kalera. PREZIO BERRIA. 639 738 413.
- Garajeko marra bat alokatzen da, Hipodromo etorbidean. 688639297

**Salerosketak**

- Logela salgai. 1,35eko ohea, bi ate dituen armairua, bi mahaitxo eta cajoiak dituen bi komodaz osatua. Oso egoera onean daude altzariak. 603 89 23 92 Juan Luis.

**Lan-eskariak**

- Emakume eskaintzen da haurrak edo pertsona adinduek zaindu edo etxeko lanak egiteko orduka edo interna moduan lan egiteko. Harremanetarako, 608 131 170.
- Mutila eskaintzen da edozein lan egiteko,

- taberna edo jatetxe bateko sukaldian, margolanak egiteko... Harremanetarako, 648 637 732.
- Emakume eskaintzen da interna moduan edo orduka etxeko lanak, garbiketa edo helduak zaintzeko. Esperientzia eta paperak dauzka. Harremanetarako, 619 803 199.
- Haurrak edo pertsona adinduek zaindu edo etxeko lanak egiteko prest nago orduka edo interna moduan. Harremanetarako, 610 887 845.
- 37 urteko emakumea lanerako prest. Arduratsua, langilea... Lan egingo nuke denda, kafe-tegi, okindegia, lantegia... janari manipulatzailerak karnetakin, eta autoa ere bai. 666 539 284.
- Emakume eskaintzen da garbiketa edota zaintza lanak egiteko. 602460320
- Lan bila nabil. Etxeak garbitu, zaharrak edo haurrak zainduko nituzke orduka. Harremanetarako 943 404 015 edo 606 661 048 zenbakira deitu, Doris.

**Bestelakoak**

- Ingeles, gaztelera, matematika eta bestelako klase partikularrak. 693 601 222.
- 13 urteko mutiko bati gitarra jotzen irakatsiko dion norbaiten bila gabiltz. Astean bi ordu eta arratsalde beharko luke. Urritik aurrera hasteko. 943 36 33 71 Ritxar.

Heriotzak Jaiotzak

**Jaiotzak**

- Erlantz Sanchez Huerta, irailaren 7an.
- Nora Garcia Navarro, irailaren 7an.
- Aitana Garcia Brit, irailaren 4an.



**Heriotzak**

- Pablo Arregui Ugalde, irailaren 10ean, 78 urte zituela.
- Alvaro Cabada Saldias, irailaren 4ean, 76 urte zituela.
- Jose lügo Delgado, abuztuen 31ean, 72 urte zituela.



Farmazia Goardiak

**EGUNEKOAK: 09:00-22:00**

<b>Ostirala, 14</b> Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
<b>Larunbata, 15</b> Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
<b>Igandea, 16</b> Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
<b>Astelehena, 17</b> Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
<b>Asteartea, 18</b> De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
<b>Asteazkena, 19</b> Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
<b>Osteguna, 20</b> Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567

**GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero**

Chucua, Kardaberaz 48  
Hernani, Tel.: 943 551793

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Udalaren telefonoak

Erregistroa	943 376055
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kiroldegia	943 376182
Kulturetxea	943 376181
Gizarte Zerbitzuak	943 376179
KIUB	943 361605
Udal euskaltegia	943 361621
Munteri AEK	943 372863

**Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak**



**Lasarte-Oriako Udala**  
Euskara Batzordea



**EUSKO JAURLARITZA KULTURA SAILA**



**GFako Kultura eta Euskara Departamendua**

## UDALA

# Abortuaren legea hizpide

Michelingo zelaia berritzeko lanak astelehenean hasiko dira

**Iraileko ohiko udal batzarraren erabaki garrantzitsu bakarra hartu zen, abortuari buruzko legea ez aldatzeko eskatuz PSE-EEK egindako proposamena. Bilduk aldeko bozka eman zuen eta soilik PPko Vanessa Velezek eman zuen aurkako botoa. Ondoren, zenbait galdera luzatu zizkien PSE-EEKo Jesus Zaballosek Udal Gobernuko ordezkari, udal langileen Gabonetako aparteko soldata, Okendoko aparkalekuak, Michelingo zelaia, Somoto laguntzei buruzko ikerketa eta bere aurkako pintadei buruz.**



Jesus Zaballosek bere aurkako pintadak kentzea eskertu zion udal gobernuari.

**E**makumeek haurdunaldia bere borondatez eteteari buruzko 2/2010 legea aldatzeko Madrilgo Gobernuak egindako iragarpenari erantzunez, PSE-EEK egindako proposamena onartu zen asteartean egin zen Udal Batzarrean.

PPren Gobernuak abortuari buruzko legea aldatzeko eta eskubide hori murrizteko asmoaren aurka 140 elkartek aldarrikatu duten "Erabakitzeko libre egiten gaitu" leloa duen adierazpenekin bat egiteko eskatu zuen PSE-EEK onartu zen proposamenean, eta gainera, Madrilgo Gobernuari zera exijitzeko, mantentzala osasun sexualari, ugalketari eta haurdunaldiaren borondatezko eteteari buruzko 2/2010 legea eta haurdunaldia eteteko emakumeek duten eskubidea.

Pablo Barrio alkateak Bilduren izenean adierazi zuen proposamenaren mamiarekin, emakumeen eskubideen aldeko jarrerarekin bat egiten zutela, eta soilik argitu nahi izan zuen, horrelakoak menpekotasun egoerarengatik gertatzen direla: "horregatik ez balitz beste lege batzuek izango genituen, askoz ere irekiagoak" esan du Pablo Barriok.

EAJ-ko Estitxu Alkorta azaldu zuen gaia delikatua dela, eta legearen erreformarekin ados ez badaude ere, "Erabakitzeko libre egiten gaitu" leloarekin ez daudela erabat ados.

PPko Vanessa Velezek azaldu zuen oraindik ez

dagoela legea aldatzeko proposamen zehatzik eta soilik Justizia Ministroaren adierazpenetan oinarritu dela PSE-EEKen eskaera. Ama izateko eskubidea aldarrikatu zuen eta abortuari alternatibak bilatu nahi dizkiotela esan. Gainera bere ustez ez da Udaletxean jorritzeko gaia.

Soilik PP-k eman zion aurkako botoa, EAJ eta Herriarren Plataforma abstenitu eta besteek babestu zuten proposamena.

## Galdera eskaerak

Galdera eta eskaeren momentura iritsita, Jesus Zaballosek hartu zuen hitza. Batetik, Michelingo futbol zelaian belarra aldatzeko lanen atzerapena nabarmendu zuen, noiz egingo den eta kirol taldeen entrenamenduak nola antolatuko diren galdetuz.

Taxio Arrizabala Kirol arduradunak azaldu zuen maiatzerako prest zela proiektua, eta enpresa aukeratzeko baldintza eta lehiaketak atzeratu duela. Hala ere aurreratzen astelehenean irailaren 17an hasiko direla lanak, eta etengabe egon dela Udala Kirol taldeekin hartuemantetan, beraz elkarrekin lotu dutela entrenamenduen antolaketa. Batzuek Errealaren zelaian, besteak Usurbilgo zelaian eta talde txikiak herriko beste instalakuntza batzuetan arituko dira, Taxiok adierazi zuenez.

Pablo Barrio alkateak erantzun zion, eguberrikako "estra"-ren inguruan eta

oraindik bukatu eta ireki gabe dauden Okendoko aparkalekuen galderari.

Barriok argitu zuen batetik udal langileei soldata murrizten dion neurri horren kontra daudela, "ez da bidezkoa langileei dagokien eskubide hori eta betidanik kobratu duten soldata hori kentzea" eta euren helburua, "langileen eskubideak defenditzea" dela.

## Aparkalekuak

Bestetik, alkateak esan zuen Okendoko aparkalekuen inguruan egin zen galdeketa-aren emaitzak positiboak izan direla, herritarrek "interesa" adierazi dutela eta horretan oinarrituko dela erabakia.

Jesus Zaballosek bere aurkako pintada kendu zirelako eskerrak eman zizkien Udal Gobernuko ordezkari eta zera eskatu zuen, edozeinen aurkakoa izanda ere berdin jokatu dezala Udalak "ofizioz" aurrerantzean.

Ana Prieto zinegotziak azaldu zion, "gaitzetsi egiten ditugu pintadak, baina komunikabideen bidez izan dugu hauen berri eta aurretik jakinarazi bazenigen lehenago erretiratuko genituen".

Zaballosek ikerketa batzordeari buruz galdetu zuen, nori eta zein delitu leporatzen zaion, eta delitu zantzuak baldin badaude zergatik ez diren jakinarazi. Estitxu Alkorta erantzun zion Somotora bideratutako laguntzen inguruko salaketa lantzen ari dela Udala baina laster izango dutela bere berri "dagokien tokian".

## IKASTAROA

## Egur-tailan matrikulatu on-line

Urritik ekainara bitartean egur-taila ikastaroa burutuko da. Hiru ordu tartetan eskaintzen da astearte eta ostegunetan.

Dagoeneko izena eman daiteke [www.lasarteoriasarean.eu](http://www.lasarteoriasarean.eu) web gunean. Aurten matrikulazioak kultura sailaren gune honetan egin beharko dira. Bertan jarri da ere ikastaroren inguruko informazioa. Tailerak zureko eskultura landuko du eta astean hiru orduko iraupena izango du.

Izena emateko azken eguna irailaren 21a izango da eta ikastaroaren kostua 118 eurotako da herrian erroldatuta daudenentzat; erroldatuak ez daudenak, berriz, 196,50 euro ordaindu behar dituzte.

## MUSIKA

## Gazte kontzertuak asteburuan

Aste Santuan antolatuta zizuten lehen Gazte kontzertuak eta bihar larunbata bigarren saio batekin gozatzeko aukera izango da Okendo plazan. Donostiako Besteik-pe, Usurbilgo Odolaren Mintzoa, Hernaniko Oi dek oi eta herriko The Garax taldeen kontzertuak izango dira, 22:00etatik aurrera.

Kontzertu hauek Steps Junior enpresak antolatuta ditu Lasarte-Oriako Igor Aizpurua eta Iñigo Arrieta gazteek sortua.

## DANTZA

## Erketz txikin izena emateko aukera

Herriko Erketz dantza taldeak bere harrobia sendotu nahi du eta horregatik, 5 urtetik 14 urte arteko haur eta gazteak animatu nahi ditu eurekin euskal dantzak ikastera.

Honela Erketz txikiren lehen entseguak urrian hasiko badira ere, honetan parte hartu nahi duten haurrek irailaren 18, 19 eta 20an Erketzeko lokalean, Zumaburu ikastetxeko gimnasioan, izena eman beharko dute 18:30tik 20:00etara.

## KUKUKA

## Matrikulatzeko epea zabalik

Kukuka antzerki eta dantza eskolak matrikula egiteko epea zabaldu du.

Urteroko eskaintzaz gain, antzerkia, dantza garaikidea, euskal dantza eta euskal dantza sorkuntzarekin batera bi berrikuntza daude. Batetik, euskal dantza sorkuntzan helduentzako talde berri bat osatuko da, honetan izena emateko euskal dantzako ezagutza praktikoa izan beharko da, eta bigarrena, break dance ikasteko aukera. Azken hau DBHtik aurrera eskainiko da.

Izena ematea irailaren 17 eta 18an egin beharko da Manuel Lekuona kultur etxean 10:00etatik 12:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

Informazio gehiago eskatzeko edota edozein zalantza argitzeko 655 847 345 telefono zenbakira deituta edota kuku-kaeskola@hotmail.com helbidera idatzita egin daiteke.

## XUMELA

## Entseguak astelehenean hasiko dira

Ikasturte berria astelehenean, irailak 17, hasiko da Xumela abesbatzako kideentzat. Ohi bezala entseguak Landaberri-BHIIn egingo dira astelehenero 19:30etatik 20:30era bitartean.

Euskaraz kantatuz ondo pasa nahi duten herritarrentzat atea zabalik daudela adierazi dute Xumelakoek, "kide berriak ongi etorriak izango dira". Honetan parte hartzeko nahikoa izango da entsegura azaltzea.





# Euskararen Maratoiak zure laguntza behar du!



■ 200 laguntzaile behar ditu Euskararen Maratoiak ■ Urriaren 20 eta 21ean egingo da jaialdi handia ■ Asteleheneretik aurrera parte hartzeko izen-ematea egin ahal izango da

*Maratoian laguntza eman edota hainbat ekintzatan parte hartzeko izena emateko epea astelehenera zabalitzen da. Aplikazio informatiko interaktibo baten bitartez denbora errealean [www.euskararen-maratoia.com](http://www.euskararen-maratoia.com) helbidean izena emateko aukera dago. Interneten moldatzen ez direnek Ttakuneko bulegotik pasa edota telefonoz eman dezakete izena. Animatu eta parte hartu!*

## TXINTXARRI

Euskararen zortzigarren Maratoia hemen da. Urriaren 20 eta 21ean ospatuko da herrian euskararen jaialdi handia eta dagoeneko iritsi da laguntza eskatzeko garaia.

Laguntzaileak behar ditu Maratoiak bai, eta antolatzaileek eskaera hau egin nahi dute lerro hauen bitartez.

Aurreko edizioetan bezala esku asko behar dira 40 orduko jaialdi honetan antolatzen diren ekintza guztiak aurrera ateratzeko. Laguntzaileak behar dira baina baita prestaturik diren ekintzatan parte hartuko duten herritarrek ere bai.

Lan txandetan artean, muntaia, desmuntaia, otorduetako zerbitzariak, txosnan eta informazioa eman eta txartelak eta kamisetak salgai izango dituen denda lan egiteko beharko da jende gehien.

## Etxetik mugitu gabe

Lanerako edo bestelako ekintzatan parte hartzeko izen-ematea on-line egin daiteke asteleheneretik aurrera. Aurtengoan ez da etxetik mugitu beharko tramite hau egiteko. [www.euskararenmaratoia.com](http://www.euskararenmaratoia.com) helbidean sartu eta izen hartzeko jartzen duen estekan klikatuta erabiltzaile bezala erregistratu eta bertan azalduko dira lan txandak eta ekintzen ordu-tegi guztiak.

Horrela txosnan lan egiteko prest egonez gero, bertan klikatu eta hoberen dagokigun ordua hautatuko dugu. Erabiltzaile batek nahi beste pertsona apuntatu ahal izango ditu txanda horretarako hau da, koadrilakoekin lan txanda batean izena eman nahi duenak, ez ditu besteen datuak

eman beharko, bost lagun direla zehaztearekin nahikoa izango da. Noski, txanda bakoitzean behar diren pertsona kopurua zehaztuta dago eta ezingo da hau gainditu. Horrela nahi dugun ordua beteta dagoela ere ikusi ahal izango dugu.

On-line izen-ematea egin ostean, Maratoiko antolatzaileak arduratuko dira telefonoz edota e-mail bidez parte hartze hau konfirmatzeaz hutsik egon ez dadin.

Erabiltzaileak aukera izango du gainera, behin erregistratuta bere parte hartzea kudeatzeko. Hau da, txanda betetik ezabatu ahal izango da, beste batean sartu edo besterik gabe gauza bat baino gehiagotan bere izena eman.

Interneten moldatzen ez direnak berriz, ohiko bideak erabili ahal izango dituzte. Horrela laguntzeko prest daudenak Ttakuneko bulegotik pasa edota 943 371 448 telefonora deituta egin ahal izango dute euren izen-ematea.

## Ekintza ugari

Lan egiteko tarteetan izen-emateaz gain, jaialdian zehar burutuko diren ekintzatan parte hartzeko ere lekua hartu daiteke.

Aurten bi ekintza nagusi antolatu dira, 40 orduetan zehar burutuko direnak alegia. Batetik, Benedika, Buruntzatik gertu dagoen mendira igoera hainbatetan egingo da eta bestetik, Udaletxe berria ezagutzeko bisita gidatu bereziak antolatu dira. Horretaz gain, mus, xake, edota bestelako ekintzatan parte hartzeko izen-ematean ahal izango da.

Ekintza bakoitzaren deskribapen zehatza txertatu da ere gauza bakoitza zertan datzan

Erregistratu emanda datuak eskatzen ditu aplikazioak ondoren aukeratzeko zein ekintzatan izena eman, hauek urratsak.

ezagutzeko eta herritarrek ekingo diren inguruan ahalik eta informazio osatuena izan dezaten.

## Facebook

Maratoiak ez dauka atzera bueltarik, dagoeneko gainean dugu eta herrian jai honetarako giroa sortzen doa.

Zortzikotea lanean da eta antolaketa lanetan jardun diren lan taldeak ere gogoz ari dira egitarau erakargarri eta parte hartzaile osatzen.

Datozen asteetan argitzen joango dira Maratoiairen nondik norakoak. Bitartean, zortzikoteko kideak pixkanaka ari dira Euskararen Maratoiairen Facebook orrian bere inpresioak txertatzen. Jarraituzare sare sozialetan hor dabilta eta.

## Kamisetak salgai

Gainerakoan gogoratu dagoeneko salgai direla Maratoiairen kamisetak. Jalgin daude erakusgai aurtengo ediziorako haur, emakume eta gizonentzat prestatutako modeloak. Erosteko Ttakunen dago aukera bulego ordutan. Haurren kamisetak 10 eurotan saltzen dira eta helduenak berriz 15 eurotan.

Animatu eta parte hartu, denon artean egingo dugu Euskararen 8. Maratoia!

2012ko Urriak 18	2012ko Urriak 19
Forma	Forma
Erabiltzaile izena	Erabiltzaile izena
25	25
Erregistratu	Erregistratu

Erreserbak		Norberarenak	
Talde izena	Erabiltzaile izena	Txanda	Erreserbat kopurua
Takun	Takun	Gaia (19:00-11:00)	6
Takun	Takun	Gaia (12:15-12:45)	10
		Erregistratu	Ezabatu
		Erregistratu	Ezabatu



# Euskara

# 2012-2013

# ikasteko aukera

**Diru-laguntzak**  
%40-%75

Edozein  
lasarteoriarrentzat  
matrikularen %40  
arteko diru-laguntza.  
Gurasoentzat,  
merkatariarentzat eta  
begiraleentzat %75  
artekoa.

**ona eta  
merkea**

## Udaleko euskaltegia

- Helbidea: Beko kalea bidea 1
- Telefonoa: 943 361 621
- e-maila: euskaltegia@lasarte-oria.org
- Matrikulatzeko epea: irailaren 3tik 18ra

## Munteri-AEK euskaltegia

- Helbidea: Geltoki kalea 17 - behea
- Telefonoa: 943 372 863
- e-maila: lasarte@aek.org
- Matrikulatzeko epea: irailaren 1etik 30era

**aukera**  
**Euskara ikasteko**  
**aukera**  
**Euskara ikasteko**  
**aukera**  
**Euskara ikasteko**  
**aukera**  
**Euskara ikasteko**  
**aukera**  
**Euskara ikasteko**

## Informazio gehiago

Udaleko euskarako zerbitzuan:

- Helbidea: Kale Nagusia 22
- Telefonoa: 943 376 184
- e-maila: euskara@lasarte-oria.org



## LABURRAK.-



Kirol guneke futbol zelaiko egoera ez da egokia. Kirol taldeen eskaera dela eta, aldatuko da.

## Michelingo zelaiko berritze lanak bi hilabetez

Michelingo zelaiak konponketak behar zituela salatzen zuten herriko kirol talde ezberdinek. Nahi baino gehiago luzatu arren, Tasio Arrizabalaga kirol zinegotziak jakitera eman duenez, astelehenean hasiko dira lanak. Proiektuak jarraitu beharreko prozesu administratiboa epeetan luzatu egin dela azpimarratu zuten zinegotziak Udaltzarrean.

Lanek bi hilabeteko iraupena izan dezakete beraz udala kirol elkarteekin batera entrenamenduak eta partidak jokatzeko aukera egokienaren bila dabilta. Momentuz asteburu honetarako aurreikusitako partidak Michelinek jokatuko dira.

## Ostadarren Futbol Eskolako informazioa

Ostadar SKT-ko Futbol Eskolan izena eman duten gaztetxoek 2012-2013 ikasturteari buruzko informazioa guztia (entrenamenduak, taldeak, etab.) eskuragarri izango dute Ostadarreko egoitzan, Geltoki kalean 25. zenbakian, arratsaldeko 16:00etatik aurrera.

## Areto Futboleko txapelketarako izena ematea

Ostadar SKT-k XXX. Areto Futboleko txapelketa antolatzen hasi da eta horretarako, taldeen izena emate epea ireki du.

Txapelketan parte hartzeko asmoa duten taldeek Ostadarreko egoitzan eman behar dute izena, asteleheneetik ostiralera 18:00etatik 20:00etara.

Lehiaketari edo izena emateari buruzko informazio gehiago eskuratzeko ere egoitzara hurbildu behar direla jakin arazi dute antolatzaileek.

## Civicos hirugarren Jolastokietan

Jolastokietako krossa izan zen, irailaren 8an, larunbata, Donostiako Herrera auzoan. Honetan, Nieves Civicos herritarrek emakumeen hirugarren postua eskuratu zuten lasterketako 6,1 kilometroak 19:54 denboran egin ostean.

Bestalde, irailaren 1ean, XXXVI. Guadalupeko igoera burutu zen eta Andoaingo Zumeaterra taldean dabilen Gonzalo Sukunza herritarra seigarren iritsi zen Guadalupeko elizako helmugara.

## KIROL AGENDA.-

## FUTBOLA

Larunbata 15

Barakaldo, 16:00etan

Barakaldo-Ostadar  
Kadeteen Ohorezko maila, Euskal Liga

Igandea 16

Azkoagain, Oiñti, 16:30ean

Aloñ Mendi-Ostadar  
Eregional Ohorezko maila

## PILOTA

Larunbata 15

Andoain, 11:30ean

Gazteleku-Intza  
Eskuz binaka, II. jubenila

Michelingo pilotalekua, 16:00etan

Intza-Hondarribia  
Eskuz binaka, II. kadetea

Michelingo pilotalekua, 16:00etan

Intza-Aurrera Saiaz 3  
Eskuz binaka, I. jubenila

Michelingo pilotalekua, 16:00etan

Intza-Lagunak 2  
Eskuz binaka, II. seniorra

## ERRUGBYA

Igandea 16

Michelin, 09:00etan

Beltzak Ostadar Jalai Errugby  
eskolako maila guztiak  
entrenamendua dute.

## ATLETISMOA

Larunbata 15

Donostia, 20:30ean

Herriko hainbat korrikalarik Egia  
auzoko Porrontxo jaietako XV.  
krossean parte hartuko dute.

Igandea 16

Leitza, 09:30ean

Herriko hainbat korrikalarik  
Plazaolako VI. maratoi erdian parte  
hartuko dute.

Zestoa, 10:30ean

Herriko hainbat korrikalarik Aukuak  
biran parte hartuko dute.

Usurbil, 11:00etan

Herriko hainbat korrikalarik

V. Baxurde krossean parte hartuko  
dute.

## TENISA

Astelehena 10-Igandea 16

BURUNTZALDEA TXAPELKETA

Urnietako kirolgunea

Jon Ramos-Aitor Badiola  
Oscar Parrondo-Jagoba Irigoien  
Javier Velasco-Tito Loza  
Fermin Tena-Mikel Espinal

Astelehena 17-Asteazkena 19

BURUNTZALDEA TXAPELKETA, FINAL ERDIAK

Urnietako kirolgunea

## TXIRRINDULARITZA

Larunbata 15

Irun, 11:00etan

Buruntzazpi eskolako eta herriko  
junior mailako txirrindulariak XXXI  
Beasain proba-mundialaren aurreko  
klasikoan parte hartuko dute.

Igandea 16

Biyak Bat, 08:30ean

Ostadar SKT-ko zikloturistek  
irteera dute Artikutzara.

Hondarribia, 09:00etan

Herriko hainbat txirrindulari XXII.  
Oleasro BTT proban izango dira  
lehiatzen.

## IGERIKETA.-

Juan Vicente Martin hirugarren  
itsas zeharkaldien ligan

Hirugarren izan zen ere Kontxako badia itsas zeharkaldian

**Buruntzaldea IKT-ko igerilari masterrek ez dute atsedetik izan udan, itsas zeharkaldien ligako probatan parte hartu dute. Juan Vicente Martin master+ mailako hirugarren postua eskuratu zuen. Ligako azken proban, Kontxako Badian igeriketa taldeko infantil eta seniorrak ere izan ziren lehiak.**

Nerea EIZAGIRRE

Kontxako badian lehen-go asteburuan estropadez gain, larunbatean itsas zeharkaldien ligako azken proba izan zen. Honetan Buruntzaldea IKT-ko neska-mutilak izan ziren. Horien artean, Juan Vicente Martin izan zen brontzezko domina etxera eramana zuena.

## Kontxako zeharkaldia

Proba honetan 2.200 metroko zeharkaldia egin behar izan zuten masterrek.

Borja Apeztegia Buruntzaldea IKT-ko entrenatzaileak azaldu digunez, Juan Vicente Martinentzat "erronka berezia izan" zen. Izan ere, itsas zeharkaldiko ligako azken proba izan eta bere mailako hirugarren postua izan eskura.

"Gogotsu aritu zen" aipatu digu entrenatzaileak eta 32 minutu eta 43 segundoko marka eginez, bere mailako hirugarren izan zen Kontxako hondartzako helmugan.



Juan Vicente Martin Kontxako Badia itsas zeharkaldiko podiumean. BURUNTZALDEA IKT

## Master mailan hirugarren

Emaizta honek gainera, Itsas zeharkaldien Ligako sailkapeneko hirugarren postua ziurtatu zuen.

Liga hau uztaila eta iraila artean lehiatu da eta sei probek osatu dute aurten, Getaria-Zarautz, Txingudi, Paseo Berria, Santa Clara irla, Haize Orraziaren pasealekua eta Kontxako Badiako zeharkaldiek, hain zuzen ere.

Paseo Berriko zeharkaldian parte hartu ez arren, beste bost zeharkaldietan lortutako puntuek hirugarren postua eman diote herriko igerilariari.

Buruntzaldea IKT-ko entrenatzailearen hitzetan, "arrotz eraman zituen domina eta garaikurra etxera".

## Ikasturte hasiera

Borja Apeztegia entrenatzaile

leak azaldu duenez, proba honek 2012-2013 ikasturteari hasiera emateko balio izan du infantil, jubenil eta seniorrentzat.

Gauzak honela, infantil mailan, Jone Vazquez izan zen 750 metroko ibilbidea azkarren egin zuena. Zapi-garren izan zen 7 minutu eta 16 segundoko marka egin ostean.

Mutiletan, berriz, Mikel Sotok 7 minutu eta 19 segundoko egin zituen.

Bestalde, senior mailan, Iñigo Ibarburu bederatzigarren izan zen. Gazteak 29 minutu eta 32 segundotan egin zituen itsas zeharkaldiko 2.200 metroak.

Nesketan berriz, Alazne Egiazabal izan zen azkarrena. 34 minutu eta segundo bateko marka eginez, hemeretzi-garren iritsi zen helmugara.

## Agenda

Larunbata 15, 22:00etatik aurrera, Okendo plaza



### Gazte kontzertuetaz gozatu

Donostiako Besteik-pe, Usurbilgo Odolaren Mintzoa, Hernaniko Oi dek oi eta herriko The Garax taldeen musikaz gozatzeko aukera izango da Gazte kontzertuetan. Lasarte-Oriako bi gazteek eta MU unibertsitateko haien ikaskideek sortutako Steps junior enpresak antolatutako ekintza da.

### OKENDO PLAZA

Larunbata 29-Igandea 30

Beste urte batez, herriko Aterpea elkarteak Udalaren laguntzaz V. Stock eta Saldoen Azoka antolatuko du.



### Bestelakoa

OKENDO PLAZA

Larunbata 22, arratsaldean

Euskaraz bizi nahi dut martxa egingo da herriko kaleetatik zehar. Kontseiluak herriko hainbat elkarteekin antolatutako ekimena da.

### Hernani

### Jaiak

ERDIALDEA

Larunbata 15-Igandea 16

Euskal Jaiak ospatuko dituzte Hernanin.

GUDARIEN PLAZA

Igandea 16, 12:00etan

XIV. Gazteen Tikitixa Txapelketa ospatuko da Kriskitiña dantza taldeak antolatuta.

### Erakusketa

BTERI KULTUR ETXEA

Irailaren 28tik-Urriaren 11era

Argazki Rally digitalaren erakusketa ikusgai izango da.

## Lasarte-Oria

### Musika

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Ostirala 14, 23:00etan

Glazz taldearen jazz, rock eta psikodelia doinuez gozatzeko aukera izango da.



ABEND KAFE-ANTZOKIA

Ostirala 14, 23:45ean

Metal gaua Hell Damm eta Noxbleed taldeen eskutik. Sarrera 5 euro.



ABEND KAFE-ANTZOKIA

Ostirala 21, 00:00etan

Sergio Cruz, Mora GS eta Daniel Knob

dj-en emanaldia entzungai izango da.

### Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Iraila osoa

Jon Galdos artista irundarraren Amalurra erakusketa ikusgai dago.

### Azoka

OKENDO PLAZA

Ostirala 21-Igandea 23

Erdi Aroko azokaz gozatzeko aukera izango da.

## Herritarren txokoa

### Biyak Baten txangoa Jacara

Biyak Bat elkarteak txangoa antolatuko du irailaren 21ean, Jacara.

Autobusa goizeko 8:00etan aterako da elkarteko egoitza.

Santa Cruz de la Serós eliza erromanikoa eta San Juan de la Peña monastegia ezagutu ahalko dira txangoan.

Bazkal ostean, denbora librean izango da Jaca herria ezagutzeko.

Irteeraren prezioa 34 eurotako da bazkideentzat. Bazkide ez direnek ordea, 38 euro ordaindu behar dituzte. Izena ematea astelehenean ireki zen.

### Alboka abesbatza martxan

Alboka Abesbatzak jakin arazten du, 2012-2013 ikasturteari hasiera eman diola.

Era berean, abesteko interesa duen orori Zumaburuko Arantzazuko Amaren eliza azpiko lokalera, astelehena edo ostegunetan 20:00etatik 21:00etara, hurbiltzeko gonbita egiten die.

**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:**

Geltoki kalea, 4 943 366858  
txintxarri@txintxarri.info

### Eskutitza

#### Jose Antonio Agirre lehendakaria, eredu

Lehengoa, bizkaiko herri batean ezazagunek edukiontzi batzuk erre egin zituzten. Kale borrokako ekintza bat gehiago zirudienari buruz, Laura Mintegik kazetari bati "horrelako ekintzak gaitzestea politikariei ez zegokiela, apaizei baizik", esan zion lotsagabe. Ez zuen ontzat edo txartzat ekintza jo nahi izan, ez zen ausartu. Eskerrak behintzat, ekintza gatazka politikoaren ondorioari leporatu ez ziola. Lasarten horretaz asko bait dakigu. Oraindik baditugu gogoan gure herrian duela ez asko gertatutakoak. Gaur beste giro itzaropentsu batean gaudela dirudi eta bakegintzarako aurrerapausoak, nahiz eta traketsak izan, ongi etorriak dira. Baina birbiltasun berarekin esan behar dugu jasan izan dugun indarkeriaren aurrean ezker abertzaleak izandako (eta egun duen) jarrera, Jose Antonio Agirre Lehendakariak bere bizitza osoan defendatu izan zuen ideietatik, urruti dagoela oso. Horregatik, Carlton Hotelean izandako ekitaldian bere irudiki eta berak suposatzen zuena EH Bilduk aldarrikatzea, lotsa-

gabekeria eta harropuzkeria jasanezina da guretzat. Hori bai, Laura Mintegik eta EH Bilduk badute norengandik ikasi; hona Jose Antonio Agirre lehendakariak atzerritik Euskadiko herriari, 1939ko abenduaren 24ko Mezuaren amaiera aldera zer zioen, denontzat jakingarri:

"Sufritu duguna sufrituta ere, guri egin dizkiguten injustiziaz eginda ere; Aberriaren etsaiek gure lurrera suntsiketa ekarri duten arren; nahiz eta gure senide batzuek itsu-itsu jokatu, ez baitzuten sekula ulertu nahi izan euskal batasun nazionalen, gure herrian bertan, daudela kanpoan bilatu nahi dituzten makina bat gaitzen indar sendagarriak; nahiz eta horrek guztiak zoritxarra ekarri duen gure herriari, bene-benetan eta gogo biziz erregutzen dizuet, ez dadila gorroto-izpirik izan zuen bihotzean, izan ere gure herria ezingo baitugu inoiz eraiki indarkeriaren eta gorrotoaren oinarri gainean.

A!, baina injustizia ere ez da izango gure ondarea, ez horixe. Ez inmu-

niterik ez mendekurik. Inmunitaterik ez hainbeste biktimaren minetz eta odolez eskuak zikinduta dauzkatenentzat, direnak direla; eta mendekurik ez, horrek ekarriko lukeen arrangurakateak handitu besterik ez bailuke egingo lehendik eragindako mina. Herriaren benetako ordezkari garenok, gure herri on eta bihotz zabalak bezala eskuak garbi dauzkagun gizonok esan dezakegu hori. Krimena egin zuena ez da euskaldun izena izateko duin."

Lasarte-Oriako EAJ-PNV



# Zaharren omenaldian aste beteko ospakizunak

Biyak Bat elkartearen 34. urteurrena ere ospatuko dute urriaren 8an

Urtero legez, Zaharren omenaldia ospatuko da gure herrian. Aurten ordea, asteburuko ospakizunak izan beharrean, aste beteko egitaraua osatu dute Biyak Bat elkarteak kideek. Txapelketak, emanaldiak, dantzaldiak,... denetarik antolatu dute herriko adinduek ederki gozatu dezaten.

## TXINTXARRI

Udalak lagunduta, Biyak Bat elkarteak aurten aste betez, urriaren 1a eta 8a artean, Zaharren omenaldia ospatuko du. Elkarteko kideek azaldu digutenez, hiru berrikuntza nagusi aurki ditzakegu egitarau berezi honetan ibilaldi neurtua, pala txapelketa eta dantza txapelketa.

### Aste osoko ospakizunak

Baina hauetz gain, hainbat txapelketa eta ekintza antolatu dituztela ere aipatu digute.

“Urtero egiten ditugun ekintzak dira, baina normalean ez ditugu aste berean egiten,” azaldu digute.

Honela, asteari hasiera emateko toka, igela eta bote txapelketak izango dira Isla plazan eta 4 erregetako mus finala Jubilatuen etxean.

Urriaren 2an, astearte, egoitzara hurbiltzen direnek Sun magoaren ikuskizunaz eta Adolfo Perez-en bakarriketakoz gozatu ahaliko dute.

Asteazkenean, berriz, gimnasia eta aerobic taldeek erakusketa egingo dute Okendo plazan.

Ostegunean, Pala txapelketaren finala jokatuko dute Loidi-Barrengo pilotalekuan eta Okendo plazan, Semblante Andaluz-en emanaldia izango da.

Ostiralean, berriz, Lan eta Lan antzerki taldeak “Melocotón en Almibar” lana eskainiko du.

### Ibilaldia eta dantza

Nagusien omenaldiaren baitan aurten berrikuntza nagusietakoa bat, Okendo hasi eta bukatuko den neurtutako ibilbidea da.

Larunbatean goizeko 9:30ean hasiko da eta 4,6 km-koa izango da bikoteka burutu beharreko distantzia.

Honetaz gain, arratsaldean, dantza txapelketa antolatu dute.

### Ospakizun nagusiak

Igandean, ospakizunen egun handia izango da, San Pedro elizan meza nagusia izango da.

Biyak Bat elkarteak abesbatzak eta Zero Sette akordeoi orkestrak emanaldia eskainiko dute Manuel Lekuona kultur etxean.

Ondoren, ohiko bazkaria eta dantzaldia izango dira jarraian Michelin kirol guneko pilotalekuan.

### Biyak Baten urteurrena

Honetaz gain, urriaren 8an, jubilatuetan 34. urteurrena ospatuko dute.

Goizean meza dute Ama Brigitarren komentuan eta amaitzean, luntxa izango da.

Arratsaldean, berriz, urrez-



Larunbatean, ibilbide neurtua izango da gure herriko kaleetatik zehar. Gaur da honetan izena emateko azken eguna.

ko ezteiak egin dituzten bikoteei ororigarri banaketa egingo zaie. Eta ospakizunekin amaitzeko afari-merienda eta dantza izango dira.

### Izena emateak

Biyak Batetik herriko nagusiak aste honetako ekintzetan parte hartzera animatzen dituzte eta batez ere, ibilaldi neurtuan eta pala txapelketan.

Aipatu digutenez, elkarteko bazkideek eman dute izena bakarrik eta herrian erroldatu dauden pertsona adindu guztiak, 1952an edo zaharragoak, gonbidatuta daudela azpimarratu dute.

Era berean, txapelketa desberdinetan izena emateko data eskaini dizkigute.

Martxa neurtuan eta pala txapelketako inskripziorako azken eguna gaur, irailak 14 izango da.



Igandean, ohikoa den bazkari herrikoia izango da kirolguneko pilotalekuan.

Mus txapelketan parte hartzeko, aldez, irailaren 22a baino lehen eman behar dute izena bikoteek.

Toka, igel eta bote joketan izena ematea txapelketen hasiera ordura arte egongo da irekia eta dantza txapelketan urriaren 6an, arratsaldeko

17:45ean itxiko dute antolatuak.

Txapelketei buruzko informazio gehiago eskuratzeko edo hauetan izena emateko Jubilatuen egoitzara hurbildu behar dira herritarrak goizeko ordutegian, 10:00etatik 13:00etara.



**LASARTE-ORIA**  
Udal Euskaltegia

Bekokale bidea 1  
LASARTE - ORIA  
943 36 16 21  
euskaltegia@lasarte-oria.org

**ESKAINITZA ZABALA**

- Euskalduntzea eta alfabetatzeko maila guztiak.
- Astelehenerik ostegunera.
- AUTO-IKASKUNTZA (mintzarena taldean).

**AZTERKETETARAKO PRESTAKETA**

- Hizkuntz eskakizunak eta HABERen 1., 2., 3. (EGA) eta 4. mailak.
- Titulu homologatuak: Osakidetarako, Hezkuntzarako, Ertzaintzarako eta Administrazioarako balio dutenak.

**ERABILERA BULTZATZEKO EKINTZAK**

- SOLASKIDE: Herriko euskaldunekin mintza praktika egiteko. Euskaltegian ikasten dena eguneroko bizitzan praktikatzeke.

**IKASTAROAREN IRAUPENA**

Irailaren 20tik ekainaren 19ra arte.

**MATRIKULALDIA**

Irailaren 3tik 18ra. (Geroago matrikulatutakoak onartuko dira talderik eta lekuri baldin badago).

Bulego ordutegia: 08:30-19:15



**25**  
**URTE**  
**ZUEKIN!**

Beka sistemak ditugu. Galde ezazu!

**Lasarte-Oriako Udal Euskaltegia • Tel.: 943 361621 • www.lasarte-oria.org/eu/html/25/1147.shtml**